

**EBAZPENA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN BAITA INFORMATIKA-SARE ETA -SISTEMEN KUDEAKETAKO LANGILEEN KATEGORIAKO PLAZAK ESLEITZEKO 2026-2027 IKASTURTERAKO**

Hezkuntza Sailak duela urte askotatik dauka Sare eta Sistema Informatikoen Kudeaketako Langileen lanpostuetarako pertsona-poltsa bat sortzeko beharra, 2022an unibertsitateaz kanpoko irakasleen mahaian, langileen ordezkartzaren gehiengoa lortuta hartutako Akordioaren ondorioz, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoak arlo horretan espezializatutako eta kualifikatutako langileez hornitzeko.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2026ko maiatzaren 9ko Ebazpenaren bidez, pertsonen poltsa bat sortu zen Sare eta Sistema Informatikoen Kudeaketako langileen lanpostuetarako. Kategoria hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko lan-legepeko langileen hitzarmen kolektiboan sartu da.

Lan-poltsak ireki ondoren, prozedura bat ezarri zen 2025-2026 ikasturterako Sare eta Sistema Informatikoen kudeaketako langileen plazak esleitzeko, eta prozedura hori behin betiko ebatzi zen 2026ko abuztuaren 20ko ebazpenaren bidez.

Horiek horrela, eta eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT**Lehenengoa.- Prozesuaren deialdia**

Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan 2026-2027 ikasturtearen lanpostuen esleipen-prozesurako deialdia egiten da, Sare eta Sistema Informatikoen Kudeaketako langileen kategoriarako.

Prozedura hori kolektibo honetzako egingo da beren-beregi eta Ebazpen honetan jasotakoa aplikatuko da.

Bigarrena.- Eremu subjektiboa

Esleipen-prozesuan parte hartuko duten hautagaiak Informatika Sare eta Sistemen Kudeaketa kategoriako

RESOLUCIÓN DEL DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL, POR LA QUE SE CONVOCA EL PROCESO DE ADJUDICACIÓN DE PLAZAS PARA EL CURSO 2026-2027, DE LA CATEGORÍA DE PERSONAL DE GESTIÓN DE REDES Y SISTEMAS INFORMÁTICOS

El Departamento de Educación dispone desde hace muchos años la necesidad de crear una bolsa de personas para puestos del Personal de Gestión de Redes y Sistemas Informáticos, como consecuencia del Acuerdo adoptado en el año 2022 en la mesa de profesorado no universitario, con mayoría de representación de los trabajadores, para dotar a los centros públicos de enseñanza no universitaria de personal especializado y cualificado en dicha materia.

Mediante Resolución del del 09 de mayo de 2026, del Director de Gestión de Personal, se creó una bolsa de personas para puestos del Personal de Gestión de Redes y Sistemas Informáticos. Esta categoría se ha incluido en el convenio colectivo del personal laboral del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

Una vez abiertas las bolsas, se estableció un procedimiento para adjudicar las plazas del Personal de gestión de redes y Sistemas informáticos para el curso Académico 2025-2026, que se resolvió con carácter definitivo mediante resolución de 20 de agosto de 2026.

En virtud de lo expuesto y por las facultades conferidas,

RESUELVO**Primero.- Convocatoria del proceso**

Se convoca el proceso de adjudicación de puestos para el curso 2026-2027 en los centros públicos de enseñanza no universitaria dependientes del Departamento de Educación, para la categoría de Personal de Gestión de Redes y Sistemas Informáticos.

Este procedimiento se realizará expresamente para este colectivo y será de aplicación lo recogido en la presente Resolución.

Segundo.- Ámbito subjetivo

Las personas integrantes en el proceso de adjudicación serán parte del el personal candidato que se encuentre





lan-poltsetan daudenak izango dira, Hezkuntza Sailarekin Informatika Sare eta Sistemen Kudeaketako langile gisa indarreko kontraturik ez dutenak.

Hirugarrena.- Eremu objektiboa

I. eranskinean (erantsita doa) adierazitako plazen arauzko estaldura da.

Laugarrena.- Esleitzeko irizpideak

Plazak irizpide hauen arabera esleituko dira:

- Ekainaren 25eko ebazpenaren bidez horretarako berariaz ezarritako prozeduran plazari uko egin dioten pertsonak lehentasuna dute gainerako hautagaien aldean.

- Lehen abizenaren ordena alfabetikoa, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko urriaren 28ko Ebazpenean ezarritako letratik hasita (kasu honetan, «R» letra).

Bosgarrena.- Eskabideak aurkezteko epea.

Lanpostuak adjudikatzeko eskaerak egiteko epea 2026ko uztailaren 13an hasiko da, 09:00etan, eta 2026ko uztailaren 14an amaituko da, 15:00etan.

Eskabideak Hezigunea plataforman argitaratuko den inprimakiaren bidez egingo dira.

Seigarrena.- Esleitzeko prozedura

Parte-hartzaile bakoitzak nahi dituen plazak aukeratzeko aukera izango du, eta aipatutako lehentasun-hurrenkeran esleituko dira.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez, uztailaren 16an argitaratuko da lanpostuen esleipenaren behin-behineko zerrenda.

Lanpostuak esleitzeko behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da uztailaren 16tik 20ra bitartean, 09:00etan. Hezigunea plataforman horretarako ezarritako formularioaren bidez.

en las bolsas de la categoría de Gestión de Redes y Sistemas Informáticos y que no tenga un contrato en vigor con el Departamento de Educación como Personal de Gestión de Redes y Sistemas Informáticos.

Tercero.- Ámbito objetivo

La cobertura reglamentaria de las plazas indicadas en el Anexo I (adjunto).

Cuarto.- Criterios de la adjudicación

La adjudicación de las plazas se realizará siguiendo los siguientes criterios:

-Las personas que hayan renunciado a su plaza en el procedimiento específicamente establecido para ello mediante resolución de 25 de junio tienen prioridad sobre el resto del personal candidato.

-El orden alfabético del primer apellido empezando por la letra establecida por Resolución de 28 de octubre de 2025, del director de Gestión de Personal, que en este caso es la letra “R”.

Quinto.- Plazo de solicitudes

El plazo para realizar las solicitudes de adjudicación de puestos es desde el 13 de julio de 2026 a las 09:00h hasta el 14 de julio de 2026 a las 15:00h.

Las solicitudes se realizarán mediante formulario que se publicará en la plataforma Hezigunea.

Sexto.- Procedimiento de adjudicación

Cada participante tendrá la opción de elegir las plazas que quiera y se adjudicarán en el orden de preferencia antedicho.

Mediante Resolución del Director de Gestión de Personal se hará pública la relación provisional de la adjudicación de puestos el 16 de julio.

Contra la lista provisional de adjudicación de puestos podrá presentarse reclamación desde el 16 hasta el 20 de julio a las 09:00. Mediante el formulario establecido a tal efecto en la plataforma Hezigunea.



Esleipenaren behin betiko ebazpena uztailaren 24an argitaratuko da.

Lanpostu bat esleitzen zaien langileek 2026ko irailaren 1ean itzuli beharko dute beren lantokira.

Era berean, esleipenari ezin izango zaio uko egin. Horri uko egiten bazaio, aldi baterako zigorra aplikatuko da, eta esleipenetan ezin izango da parte hartu urtebetez.

Zazpigarrena.- Errekurtsoak

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

La resolución definitiva de la adjudicación se publicará el 24 de julio.

El personal adjudicatario de un puesto de trabajo tendrá que incorporarse a su centro de trabajo el 1 de septiembre de 2026.

Asimismo, la adjudicación será irrenunciable. Si se renunciara a ella, se aplicará la penalización temporal no pudiendo participar en las adjudicaciones por el periodo de un año.

Séptimo.- Recursos

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejería de Administración y Servicios, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan
Vitoria-Gasteiz, a fecha de firma electrónica

Unai Nieto Marijuan

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECCIÓN DE GESTIÓN DE PERSONAL**